

ELGOIBAR - 764. zenb. - XVIII urtea - 2010-12-21

B

BARREN

TOKIKOM

Eguberri on!



230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne

Urte amaiera arte
bigarren garajea doan
3 logelako etxebizitza
erosteagatik!!!!



- Etxebizitza BERRIAK
- Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- Berahala eskuratzeko aukera
- Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, P.N.L, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta.

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

15-16:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatia, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasangarritasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranzatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera:

8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etxerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

LAGUNAK KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

GABONETARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Ehunak %25

Koltxoiak %15



URTE BERRI ON!



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



LOR EZAZU



8 KO

DESKONTUA

CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

BAITA

6 € KO



opari txartela ere CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzen duzun bakoitzean.

Eibarko El Corte Inglésen 25 €-tik gorako erosketak eginez gero,
%8ko deskontua(*) lor ezazu
CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

CEPSAko zerbitzugune hauetan erabiltzeko:

- BERRIZ: Eitua Plaza (Berriz)
- COPELCELT: San Fausto auzoa, 2 (Elorrio)



(*) Lehenengo 25 litroetan %8ko deskontua, 2011ko otsailaren 28ra arte aplikagarria, erregioetan bakarrik. Deskontu hau beste eskaintza batzuekin batera erabil daiteke, CEPSAren bertatik bertarako deskontu txartelekin izan ezik. Oinarriak CEPSAko zerbitzuguneetan emanda. 6€-ko opari txartela El Corte Inglésen (Moda, Oinetako, Osagarri, Lurrindegi eta Kirok sailetan) edo Hipercoren erabilgarria 30 €-tik gorako erosketetan. Eskaintza hau indarrean egongo da 2011ko otsailaren 19ra arte.

Urtarrilaren 14an jokatuko da Danbakako final handia, Elgetan

Dena prest dago Danbakako finalerako. Urtarrilaren 14an jokatuko da Elgetako Espaloia Kafe Antzokian IV. Danbaka Musika Lehiaketako final handia. Guztira, hemezortzi talde igo dira eszenatokira, eta hainbat musika estilo entzuteko aukera izan dugu urriaren 22tik abenduaren 17ra bitartean. Orain arte talde bakoitzak onena eman du, baina finalean hirurentzako tokia besterik ez dago.

Epaimahaia

Aspaldiko lagunek osatu dute epaimahaia: Jul Bolinagak, RIP taldeko gitarratzaile ohiak; Iñaki Bengoak, Gose taldeko kide eta Shot! grabazio estudioko arduradunak; Amaia Arriaranek, Arrasate Musikaleko Big Band taldeko abeslari ohiak; bere garaian Txibisto musika aretoan jardundako Julen Narbaitzak; eta Iker Barandiaran kazetari arrasatearrak.

Sariak

Aurtengo edizioan bi sari egongo dira: alde batetik, Kutxak talde onenaren saria emango du: disko bat grabatzeko aukera; eta bestetik, Mondragon Unibertsitateak Debagoieneko talde onenaren saria emango du: bideklip bat grabatzeko aukera. Baina kontzertuetara joan diren ikus-entzuleen artean ere zozketatuko dira hainbat sari. Finalean, Laino Skate Parkek emandako skate materiala eta Laino Skate Parkerako urtebeterako sarrera zozketatuko dituzte.



Atom Rhumba izango da Danbakako final handiko gonbidatua

Atom Rhumba rock-and-roll taldeak *Gargantuan Melee* azken lana aurkeztuko du zuzenean Danbakako laugarren edizioko finalean. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Bilboko taldeak Kaki Arkarazorekin egin ditu grabazio lanak, aurrekoetan bezala. Azken lan horretan, *Istingako mutikoa* kan-

ta jaso dute, euren euskarazko lehenengo kanta. Taldea aldatuta dator barrutik ere: Joseba Irazokik jardungo du gitarrarekin, eta Iñigo Cabezafuegok baxuarekin. Kontzertuak "zuzenagoak eta gordinagoak" direla nabarmendu dute taldekideek. ZuFunk, blues eta rock doinuen fusioa zuzenean entzuteko aukera izango da hortaz Elgetako Espaloian.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

DANBAKA IIII

Gabon zahar eguneko lasterketa

Urgaziko kideok lasterketa herrikoia antolatu dugu azken urteotan, Gabon Zahar egunean. Hasieran oso modu xumean hasi genuen ekintza hura herriko lasterketa herriko bakarrenetakoa izan da, eta askok parte hartu dugu urtea kirola eginez agurtzeko.

Aurten, ordea, San Silvestre eguneko lasterketarik ez antolatzea erabaki dugu. Erabaki horren atzean arrazoi bakarra dago: aurten, San Silvestre egunak Gabon Zahar feriarekin bat egiten du. Gure ustean, eta Elgoibarren dagoen ohitura kontuan izanik (lagunarteko bazkariak...), ez da egunik egokiena lasterketa antolatzeko, are gutxiago eguna ekintzaz beteta eta kaleak merkatarik postuz gainezka daudela kontuan izanik. Horregatik, eta lasterketa beste egun batean egin ala ez aztertu ondoren, erabaki dugu ez duela zentzurik lasterketa beste egun batean egiteak.

Lerro hauek aprobetxatuz, eskerrak eman nahi dizkiegu elgoibartar guztiei, orain arte antolatu ditugun ekitaldietan parte hartu duten guztiei, emandako babesarengatik. Jakizue, aurrerantzean ere ekintza hau antolatzeko asmoa daukagula Urgaziko kideok. Besterik gabe, urte berri on!



Iñigo Lariz
Urgazi Triatloi Taldea

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Eskerrak eman nahi dizkiegu orain arte antolatu ditugun ekitaldietan parte hartu duten guztiei, emandako babesarengatik”

700 BONO FALTA ZAIZKIGU SALTZEKO!



**Abenduaren 24an
Plaza Handian izango gara
Olentzerorekin batera,
eta abenduaren 28an,
Gabonetako bertso jaialdian.**

Zatoz, eta lagundu **BARREN!**

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA



**Ni ere banaiz
BARREN!**



Abenduaren 24an gero eta jende gehiago irteten da kalera.

Parrandarako ala etxean egoteko eguna da, zure ustez, abenduaren 24a?



Lorea San Martin
41 urte, etxekoandrea

Egia da aldatu egin dela hori, baina nik ondo ikusten dut. Ni ez naiz irteten, baina bakoitzak nahi duena egin dezake: etxean gelditu edo kalera irten. Lehen tabernak ez zituzten zabaltzen, baina orain bai, eta gazteak lehen baino gehiago irteten dira kalera egun horretan.



Javier Iriondo
73 urte, jubilatua

Etxean egoteko eguna da, baina kalera irten nahi duena ere errespetatzen dut. Gauzak asko aldatu dira, eta gaur egungo gazteei parranda asko gustatzen zaie. Gu hamar bat lagun elkartzen gara abenduaren 24an, eta egun horretan ez da inor kalera irteten.



Lorea Elizburu
35 urte, dendaria

Nik abenduaren 31n egiten dut parranda, eta 24an etxean geratzen naiz, baina ondo iruditzen zait egun horretan ere parranda egitea. Gabonak dagoeneko ez dira lehengoak. Lehen jai erlijioitsuak ziren eta etxean egon beharra zegoen familian, baina hori aldatu egin da.



Lidia Conchas
21 urte, ikaslea

Niretzako parrandarako eguna da! Azken bi urteotan kalera irten izan naiz, eta aurten ere badaukart irteteko asmoa. Hasieran ez zuten ondo hartu etxekoek, baina ohitu dira. Gabon gauean familian egoteko ohitura hori galdu egin da, baina ez zaio bestelako garrantzirik eman behar.



PNEUMAX, S.A.
AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es

MIEMBRO DE
  
Olehidráulica y
neumática



Gabon zoriontsuak herritar guztioi!



Lerun Txiki baserriaren hondakinak jasotzeko ordua da: “Noiz jasotzeko behar dituzte Lerun Txiki baserriaren hondakinak? Baserria bota zuten bai, baina hondakinak jasotzeko presarik ez dagoela dirudi. Sekulako itxura txarra ematen du berdegune horrek hondakinez beterik. Elgoibarrerako sarrera da, eta errepidetik pasatzen den orok ikusten du zona hori. Benetan baserria botatzeko presa baldin bazegoen, ez dut ulertzen zergatik ez dituzten hondakin horiek jasotzen. Nire ustez, bada ordua”.



Mintxetako pista berria oso iluna da: “Egunero Mintxetan elkartzen gara korrikako entrenamenduak egiteko. Duela gutxi egindako pista berriari argia falta zaio, eta hori gutxi balitz, jende asko oinez ibiltzen da. Iruditzen zaigu pista hau korrikariarentzako dela. Beraz jende horri asfaltozko pista erabiltzeko eskatzen diogu. Horrez gain, farolak ipintzeko deia egiten diogu Udalari, igerileku ingurutik gradetaraino ez baitago argirik. Eta ondorioz, neguan ezin dugu korrika egin, ilun baitago. Eskerrik asko”.



Txalo bero bat Iñaki Elizbururentzat: “Orain dela 25 urte hasi zen Iñaki Elizburu Herri Gain Elkartean laguntzako babarrunak prestatzen. Urtean birritan egiten zuen, eta halaxe segitzen du. 1985ean hamar lagun elkartzen ziren bazkari horietan, eta, 2010ean 43 pertsona batu gara. Gainera, bazkal ondoren musika emanaldia ere izan dugu aurten, eta ederki pasatu dugu, benetan. Hau guztiagatik, Iñaki Elizbururi eskerrak eman nahi dizkiogu urte guzti hauetan bere konpainiaz eta baba janaz disfrutatu izan dugulako. Mila esker, eta aurrerantzean ere horrela izan dadila”



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

JAVIER ARMERO VERGARA

*Gure ondotik joan zīnen,
baiña gure bihotzetatik ez.
Beti izango zaittugu goguan.*

Etxekoak



2010eko abenduaren 3an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Arratsaldeon guztio!

Azaroa joan da, abendua badoa, Gabonak gerturazten ari dira, eta guk beste behin ere, euskal preso eta iheslari politiko-en falta sumatuko dugu. Kalean argia eta eskaparateak piztuko dira, baina gu oraindik ere gure senide eta lagunon eskubideen defentsa ekarriko duen egunsentiaren zain gaude. Baina bidea egiten ari gara, eta burubelarrari arituko gara helburua lortu arte: Euskal preso eta iheslari politikoak etxean izan arte. Hori da gure iparra, hori da gure xedea.

Azaroan Etxeraten X. Batzar Nazionala burutu genuen. Urtearen balantzea egin, esperientziak konpartitu, parte-hartzea bultzatu eta aurrera begira jartzeko unea. Muturreko egoerak berehala amaitu behar dira. Hala eskatzen dugu, eta ez dugu guk bakarrik eskatzen, Gernikako Akordioak ere horrela diolako. Sakabanaketa bukatu beharra dago, bizi osorako zigorra aplikatzea bertan behera geratu behar da, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten preso politikoek askatasuna berreskuratu behar dute, eta isolamendu eta bakartze egoerek eten egin behar dute.

Egoera larria da. Oso larria. Iheslariak ere errealtate gordina pairatzera kondentatuak daude. Guzti hau amaitzeko garaia heldu da. Herri honek etorkizun hobea merezi du. Fase berri bat zabaldu behar dugu guztion artean. Elkarlanean. Ezinbestekoa da denon konpromisoa espesxe politika anker hau amaitu eta eskubide guztiak Euskal Herri osoan errespetatuko diren aroa zabalteko.

Urratsa eman behar dugu. Iragan den

azaroaren 13an, Euskal Herriko eta munduko hainbat norbanakok urratsa eman zuten urtarilaren 8rako *euskal presoak Euskal Herria eskubide guztiekin, egin dezagun urratsa* manifestazio nazioanala deituta. Etxerat elkarte bertan izango da. Deialdiak gure atxikimendu eta babes osoa du. Urratsa emateko garaia da. Senide eta lagunok ezin dugu bakarrik egon euskal preso politiko-en eskubideen defentsan. Euskal jendarte osoak babestu behar ditu gure senide eta lagun preso-en eskubideak. Horretara goaz, horretan ari gara: Etxeratu arte. Etxean nahi ditugulako.

Etxerat

Legalizazioa orain!

Azaroaren 27an ezker abertzaleak bere proiektu politiko eta antolatzailea aurkeztu zuen Iruñean, jendeaurrean. Duela urtebete ezker abertzaleak herriz-herri egindako eztabaidaren ondorio zuzena da emandako pauso hori. Ezker abertzaleak haratago ere, beste alderdi eta eragile politiko zein sozialek Gernikako akordioa sinatu da, non gatazka gainditzeari begira, hitzartu beharreko minimo demokratikoak zehaztu eta adostu diren.

Minimo demokratiko horietan begi bistakoa da alderdi guztien eta proiektu guztien aukera berdintasuna beharrezkoa dela; horregatik, legeztatzearen aldeko kanpaina hasi da. Alderdien Legearen aurka dagoen orok zein gatazka konponbidera eramateko desberdinen arteko elkarizketan sinisten duen orok babestu beharreko ekimena, gure uste apalean. Lehenengo agerraldiari segida emanez, larunbatean, hilaren 18an,

13:00etan, giza kate bat osatuko dugu, Plaza Handian, Udaletxe parean hasita. Herri honen gehiengoak proiektu politiko guztientzako aukera berdintasuna aldarrikatzen duela irudikatu nahi dugu, alegia.

Bide politiko-en eta demokratiko-en aldeko apustuak definitzen du fase berriaren aurrean ezker abertzaleak hartu duen jarraera estrategikoa. Erronka ez da makala, eta jada agerian gelditu da batzuen ezinegona. Batzuei ez zaie egoera hau gainditzeko interesatzen, baina ez errepresioak ez bestelako zangotrak ez dute lortuko ezker abertzaleak hartutako erabaki alde bakarreko aldatzea. Herritarro prozesua elikatzea dagokigu, eta baita bultzatzea ere, pausoak ematen segi dadin. Beraz, animo eta larunbatean plazan elkar ikusiko dugu.

Bestalde, igandean, gure kide Arnaldori babesa azaldu eta bere egoera salatzeke, Arnaldo askatu, politika askatu herritarren plataformak Logroñoko kartzelara antolatuz martxari gure babesa adierazi nahiko genioke. Besarkada bat, Arnaldo, eta beste bana Sebas, Juan Mari, Mikel, Imanol eta Ainarari.

Elgoibarko ezker abertzalea

OHARRA

Hurrengo alea urtarilaren 7an jasoko duzue. Norbaitek ale horretan zer bait argitaratu nahi badu, urtarilaren 3rako ekarri beharko du **BARRE**neko erredakziora.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneitz Lazkano, Izaro Etxegibel | MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaiene Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Inureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Miriam Garcia

Kaixo, Eva. Aurten ere iritsi zaizkigu Gabonak. Abendua iristen denean, hotzarekin eta gabon kantekin batera, urte osoan egindako bidea aztertzeko eta gure buruari urte berrirako helburuak



Eva Garcia

jartzeko ohitura dugu gehienok. Abendua dela aprobetxatuz, eta hau gure zozoen eta beleen arteko azken elkarrizketa izango dela kontuan hartuta, azken urteetan ibilitako bideari gainbegirada bat egitea proposatzen dizut.

Denbora gero eta azkarrago pasatzen dela iruditzen zait. Hiru urte pasa dira jadanik gure buruko txoriak hegan hasi zirenetik. Hegan eta hegan ibili dira denbora guzti honetan, urrun dauden habi batzuk ezagutuz eta gertu dauden beste batzuetara itzuliz. Bitartean, bidaia eta bidea.

Hiru urtez gutun bidezko elkarrizketa hau osatu eta gero, gure zirkulu txikia itxi behar duen azkeneko testu hau ere presaka idatzi behar izan dugu, gehienek jakingo ez badute ere. Beste aste askotan bezala, zozak zer esango zion zain egon da belea, beti zozoa izan omen delako berandu ibili dena. Agian inspirazio faltari bota diezaiokegu errua. Penaz diogu agur, hala ere, eta azken urteotan gozatu ditugun elkarrizketak gogora ekartzean datozkidan oroitzapen atseginek behintzat agur hori leuntzeko balioko digute.

“Aurten nire promesa handiena promesarik ez egitea izango da”

“Eva, zer eskatuko zenioke zeure buruari hemendik aurrera?”

Batek daki zein habira iritsiko diren hemendik aurrera... Baina lehen esan dizudan bezala, asmo onetarako garaia ere izaten da honako hau. Oso ondo gogoratzen dut pasa den urteko abenduan nere buruari jarri nion helburua: etxera bueltatu berri nintzen, eta ordura arte bizitako esperientzietan ikasitakoa inoiz ez ahazteko erronka jarri nion neure buruari. Ez dut uste urtero egutegiaren azken orrialdera iristen garenean jarri beharreko helburua denik; baizik eta egunero-egunero gogoan hartu beharrekoa. Eta horretan nabil. Eta horretan jarraitzea espero dut.

Eta zuk, Eva, zer eskatuko zenioke zeure buruari hemendik aurrera?

Egun batzuk barru urte berria hasiko dugula pentsatzea xelebrea iruditzen zait. Urtero bezala, erreflexionatzeko momentu aproposa dela uste dugu denok. Urte osoan zehar egindakoa eta egin beharrekoak gogoratzen ditu, nahiz jakin badakigun ez ditugula bete aurreko urtean egindako promesak. Baina 30 urte bete ditudan urte honetan, erreflexio gehiegi izan ditudala iruditzen zait bat-batean. Beraz, beteko ez ditudan promesak egin beharrean, aurten nire promesa handiena promesarik ez egitea izango da, etorkizuna aurretik argitu ezin den bide saretsu bat dela konturatu naizelako. Era horretan, aske sentitu gaitzke: norberaren burua berriro ere sortzeko momentuan sentitzen bagara, berriro ere itzultzeko edo alde egiteko gogoia badugu, barre egiteko, akatsak errepikatzen...


Zozoak, beleak, karakolak eta bareak; ametsen atzetik gailtza danok seguraski. Amets egiten jarrai dezagun orduan. Zorte on.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Erretratu zaharra



1970

Aste honetako erretratu zaharra Jesus Muguruza *Gelatxok* ekarri du BARRENERA. 1970. urte ingurukoa da, eta Jesus bera azaltzen da ezkerrean, Jose Odria (†) lagunarekin. Ehizarako zaletasun handia zeukaten, eta sarri joaten ziren oilagorretara, Katxo, Alonso eta Adonekin, besteak beste. Huesca, Araba, Nafarroa eta Burgos aldera joaten ziren sarri, eta oilagor pila bat harrrapatzen zituzten. Etxera itzultzean jendeak non erosi zituzten galdetzen zieten, eta harro erantzuten zuten oilagor haiek erositako denda inork ez zuela topatzen. Elgoibarren ehizarako zaletasun handia zegoen garai hartan, eta umorez gogoratzen du Jesus Muguruzak elgoibartar talde bati gertatutakoa: “Ehizara joan ziren sei-zazpi lagun furgonetan, eta bidean geldialdia egin zuten, atsedena hartzeko. Berriz martxan jarri zirenean, txakur bat furgonetaren atzetik korrika zihoala konturatu ziren, mihia luze-luze aterata. ‘Geratu-geratu!’ esan zuen batek, ‘nire txakurra da-eta’”. Orain dela gutxi hil zen Jose Odria, eta haren semeak eskatuta, bertso batzuk kantatu zizkion Jesus Muguruzak hileta elizkizunean. “Ez genuen bertso tristerik kantatzerik nahi, eta ehizari buruzkoak bota nituen”, esan du Muguruzak. BARRENEKO erredakzioan gogora ekarri ditu bertso horiek:

*Denak utzita, bahua Joxe
lagun zaharren modura,
dudarik ez diagu egitten
kolpe-kolpian zerura.
Oilagorrikan somatzen badek
deituzak azkar mundura,
txakur ta guzti hor gaituk laster
heuk esaten deken lekura*

*Katxo ta Alonso han egongoittuk
Adon zaharran onduan,
poz ederra hartukoitek
hi ikusittakuan.
Pasaportetik ez dek bihar
sartutzeko zeruan
txapela hor dek buruan eta,
sartu euskaldun moduan.*

*Alkarrekin ibilliak gaittuk
ehizan makiña bat urte
hemendik aurrera ibilli biharko
jua(g)u bidietan aparte
lagun ona izan haiz eta
hik eduki duan suerte
agur goxo bat denen partez
eta nik, berriz, gero arte.*

Azaroan...

JAIOAKOAK



Izai Berdonces Zalba
Azaroak 2
Peio eta Iera



Lucia Larrañaga Peñaranda
Azaroak 3
Imanol eta Arianne



Elene Ansola Irazabal
Azaroak 3
Iñaki eta Itxaso



Paul Marquez Nogales
Azaroak 25
Jose Julian eta Vanesa

Marwa Mouahibi
Azaroak 10
Ahmed eta Mina

Estrella Senga Wawa
Azaroak 19
David eta Nono

Gari Guridi Gonzalez
Azaroak 20
Jesus eta Maria Jose

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

EZKONDUTAKOAK

- Asier Irureta eta Nagore Arakistain Azaroak 8
- Josu Iparragirre eta Nerea Egaña Azaroak 20

HILDAKOAK

- Enrique Perez Perez • 90 urte • Azaroak 1
- Jose Odria Osoro • 97 urte • Azaroak 2
- Jose Manuel Dominguez Quintas • 54 urte • Azaroak 19

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

M^a LUZ GARATE ARRIOLA

2010eko abenduaren 7an hil zen.

*“Gaur zerutik bazaude lurrera begira,
gure zorion denak, zuretzako dira.”*



Presoen egoera salatzen, hiru eguneko gose greba antolatu du Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak

Hilaren 27an hasiko dute gose greba, merkatu plazako goiko lokalean

Euskal presoek eta haien senideei babeserik gabeko, sakabanaketa amaitu eta kartzela politika zuzendu dezatela eskatzeko, hiru eguneko txandakako gose greba antolatu du Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Gabonetarako. Hilaren 27an hasiko dute gose greba, eguerdian egingo duten enkarteladaren ostean, eta hilaren 30ean amaituko dute, 12:00etan hasiko den manifestazioarekin bat egiteko. Merkatu plazako goiko lokalean egingo dute itxialdia, eta gose grebak irauten duen denboran, kultur jarduerak ere egingo dituzte.

Gose grebaren lehenengo egunean esate baterako, hilaren 27an, Julen Arzuagaren *La maza y la cantera. Juventud vasca, represión y solidaridad* liburuaren aurkeztuko dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Aurkezpenean, Julen Arzuaga bera eta oraindik zehaztu ez duten beste gonbidatu bat izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Gauean, berriaz, 22:30ean, film bat emango dute. Hilaren 28an, *Sagarren denbora* dokumentala emango dute, Kultur Etxean, 19:00etan. Josu Martinezek eta Txaber Larreategik idatzi eta zuzendutako dokumentala da *Sagarren denbora*, deportazioaren gaineko testigantza. Hilaren 29an, berriaz, enkartelada egingo dute 12:00etan, merkatu plaza atarian, eta gauean, 22:30ean, beste film bat eskainiko dute Kultur Etxean.

Abenduaren 31n, urteko azken ostiralean, Etxerategiaren presoen aldeko elkarretaraztea egingo da 20:00etan, Plaza Handian. Gaur egun, bost elgoibartar eta mendarotar bat daude preso: Sebastian Etxaniz, Mikel Ibañez, Juan Mari Mendizabal, Arnaldo Otegi eta Ainara Ladron elgoibartarrak eta Jokin Urain mendarotarra.

Ekitaldi hauek guztiak urtarilaren 8rako deitu duten manifestazio nazionalari begira antolatu dituzte, atxikimenduak batzeko. Bilbon egingo da manifestazio hori, 17:30ean hasita, *Egin dezagun urratsa: eskubide guzkiekin euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Elgoibartik



autobusak ere jarriko dituzte manifestaziora joateko, eta tiketak ohiko lekuetan jarriko dituzte salgai: Iturri eta Lanbroa tabernetan. Txanakuako zubitik irtengo da autobusa, 16:30ean.

Logroñora martxa

Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak antolatuta, Logroñora martxa egin zuten domekan, Otegi babesa eta elkartasuna helarazteko, haren espetxealdia salatzen, eta hura aske lagatzeko eskatzeko. Ekitaldi horrekin, "maitasuna, berotasuna, babeserik gabeko eta elkartasuna" azaldu nahi izan zituzten politikan aritzeagatik preso daukaten elgoibartarrak. Izan ere, ezinbestekotzat jotzen dute Otegi libre lagatzea, "euskal gizarteak aldarrikatzen duen bake prozesua abian jartzeko".

Urrezko ezteiak egin dituztenak omendu dituzte jubilatuen egoitzan



Jubilatuaren egoitzak omenaldi berezia egin die 80 urte bete edota urrezko ezteiak egin dituzten bazkideei. Guztira, 135 elgoibartarrek bete dituzte aurten 80 urte, eta hamalau bikotek ospatu dituzte urrezko ezteiak. Omendu bereziak ere izan ziren, baina. Batetik, 100 urte bete berri dituen Modesta Fernandez de Jauregi, eta bestetik, Maria Mortalena eta Iñaki Insausti, azken 17 eta 21 urteotan jubilatuen egoitzako zuzendaritzako kide izan direnak.

Lekua **Basarte**



Basarteko etxebizitzetara eta Mintxetako kirol instalazioetara iristeko baldintzak hobetzeko proiektua azkeneko fasean sartu da. Izan ere, hilabete inguruko epean amaitzea espero du Elgoibarko Udalak. Horixe da, behinik behin, Ricardo Garate Hirigintza zinegotziak jakinarazi berri duena. Elgoibarko Udalaren eta Espainiako Gobernuak emandako diruarekin finantzatuko da obra hori, eta guztira, 433.000 euroko aurrekontua izango du. Irisgarritasuna hobetzeko, arrapala bat eta eskailera mekanikoen bi zati eraikiko dira.

Irudia **Jaiotza mekanikoa**

Urtero bezala, berrikuntzekin dator jaiotza mekanikoa. Aurten, eta Elgoibako Udal Musika Bandak 125 urte bete dituela-eta, omenaldi txiki bat egin nahi izan diote bandari, eta hamar musikariren figurak gehitu dituzte jaiotzan. Figuratxo horiek guztiak, eta baita haien musika tresnak ere, eskuz egin dituzte eta Ana Aranbarrak josi dizkie erro-pak. Bandako figura horietako batzuk, tartean, bandako zuzendariak, mugimendua dute (Guztira, 46 figurak dute mugimendua). Garai bateko perratokiaren eredura egindako eraikineria begira jarri dituzte musikariak, zubi ertz batean. Zubi hori Txankakuako zubiaren kopia bat da, eskalara egindakoa, Elgojaitza taldekoek jakinarazi dutenez. Horriek dira aurtengo bi berrikuntza nagusiak, baina hala ere, bestelako ikutu txiki batzuk ere egin dizkiote jaiotza mekanikoari.

Lau-bost laguneko taldeak sortu zuen jaiotza mekanikoa Elgoibarren, orain 31 urte. Azpeitian egiten zutena hartu zuten ereduztat, eta urtetik urtera, hasierako jaiotza hura osatzen eta dotoretzen joan dira. Gaur egun, hamaika lagunek osatzen dute taldea, eta iraila aldera hasten dira lanean. Urtarrilaren 17ra arte egongo da zabalik.



Amaitu dituzte Olaso hilerriko atariko obrak

Bukatu dituzte Olaso hilerriko ataria berritzeko obrak. Urtebete inguruan aldamiok jositako ataria, Olasoko biribilgunea egiteko obraren ondorioz sortu ziren arrakalak zirela-eta, baina ohiko itxura berreskuratu du jada hilerriak.

Gabonei begira, euskarazko produktuen katalogoa kaleratu du Udalak

Euskarazko produktuen katalogoaren edizio berria kaleratu du Elgoibarko Udalak, Euskal Herriko 135 toki erakunderekin batera. Katalogoak gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu. Elgoibarren, 2.000 ale banatuko dira, gehienak herriko ikastetxeen bitartez. Hala ere, euskaltegietan, liburutegian eta jostailu eta liburu dendetan ere eskuragarri izango dira katalogoak. Katalogoa sarean kontsultatzeko bi aukera daude: www.katalogoa.org webgunean edota Elgoibarko Udalaren atarian (www.elgoibar.org).

Sukaldaritzari buruzko ikastaroa, urtarrilean

Sukaldaritzaren gaineko ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udalak urtarrilerako. Lau saioko ikastaroa izango da: saio teoriko bat eta hiru praktiko, eta Elgoibarko eta inguruko baserrietako produktuak erabiliko dituzte jakiak prestatzeko, sasoiaren sasoi produkturik onenak alegia. Jesus Romera izango da irakaslea, eta eskolak eguenetan izango dira, 18:30etik 20:30era. Antolatzailerak jakinarazi dute zenbat eta jende gehiagok izena eman merkeagoa izango dela ikastaroa. Hala, hamasei laguneko izena emanez gero, ikasleek 20 euro ordaindu beharko dituzte saio bakoitzeko, baina Udalak matrikularen erdia ordainduko du. Interesatuak 943 744 374 telefono zenbakira deitu dezakete izena emateko, edota ingurumena@elgoibar.net helbidera idatzi.

UGARI

*Zorionak eta
urte berri on!*

SUPERMERKATUA



Jausoro plazan gaude!

- **Extremadurako produktu iberikoak**
- **Fruta eta barazkiak**
- **Produktu izoztuak**
- **Denetik...**

Larunbatetan eta igandetan ere irekita!

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
FELICIDADES Y PRÓSPERO AÑO NUEVO
MERRY CHRISTMAS AND HAPPY NEW YEAR
FRÖHE WEIHNACHTEN UND EIN GUTES NEUES JAHR
JOYEUX NOËL ET BONNE ANNÉE
BUON NATALE E FELICE ANNO NUOVO

豬



Azkue auzoa, 1 • Tel.: 943 744 040 • Faxa: 943 741 654 • E-posta: ils@ils.es • www.ils.es

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Gure hitzak
esan berriz esan,
ez daitezela ahaztu,
ez daitezela gal,
elur gainean
txori hanka arinek
utzitako arrasto sail
ederra bezalaxe.*



-Mikel Laboa-

Zorionak eta urte berri on!

Nafarroa Eparantza, 2 – 943 742 731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net



Makina
Erramintaren
Institutua

Instituto de
Máquina
Herramienta

www.imh.es

2
0
1
1

Elgoibartar eta Mendarotarrei zorionak eta urte berri on!

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK

– 5.000 m² babestutako
barazkigintza produkzioarako
– 200 m² manipulazio
eta ontziratze
biltegiarako



Gabon zoriontsuak!



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*

- Landareen PRODUKZIOA
- Laborantza KONTROLA
- Eskuz eginiko AUKERAKETA
- BANAKETA
- Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA

ZELETA

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserrria.com





**Elgoibarko EAJ-PNVk
jai zoriontsuak
opa dizkizue
elgoibartar guztioi.**

GABON

ZURE

EROSKETAK GASTEIZEN



ANTOLATZAILEA:



BABESLEA:





2010

urteari errepassoa

B

BARREN



- ▲ 2009an jasotako sariak hauspotuta hasi zuen urtea Anton Urresti margolari mendaroarrak. Urte borobila izan zen 2009a Anton Urrestirentzat. Bere marka guztiak ondu, eta hamar sari eskuratu zituen, 2008an baino lau gehiago. Hiru lehenengo sari, bigarren sari bi, beste horrenbeste hirugarren sari, eta bi sari berezi irabazi zituen. Euskal Herrian lortu zituen horietatik bederatzia, eta Palentzian (Espainia) beste bat.

Leonard Komon kenyarrak irabazi zuen Mugertza Krosa gizonezkoetan, eta Karandy kenyarrak emakumezkoetan. Afrikarrak nagusitu ziren Mugertza Krosean. Ez zen sorpresa handirik izan podiumean, eta aurreikuspen guztiak bete zituen Leonard Komon kenyarrak gizonezkoen kategorian. Emakumezkoetan, ordea, Goshu etiopiarrek ezustekoa eman zuen, Karandy kenyarra nagusitu zitzaialako, uste guztien kontra. ▼



Lanbroa



Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a



Idama



Azaroko irabazlea:
MARI CARMEN
LOPEZ

Abenduko saria:
AURPEGIKO
TRATAMENDUA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



▲ Iñaki Sagarnak Euskadiko txapelketa irabazi zuen pistan. Mintxeta Atletismo Taldeko Iñaki Sagarna korrikalari gazteak ezin hobeto hasi zuen urtea, Basaurin pistako Euskadiko Txapelketa irabazi zuelako. 1.000 metroko proban bera izan zen azkarrena. Basaurin irabazi eta hiru egunera podiumera igo zen berriro, Donostian, Errege Eguneko Nazioarteko Krosean.

Juanmi Abal elgoibartarrak bigarren diskoa kaleratu zuen *Laia* musika taldean. Taldeko abeslaria eta gitarra jolea da, eta abestien letrak ere egiten ditu. Hamabi kantako diskoa kaleratu zuten, sei hilabeteko grabazio lanen ostean.



▲ CME enpresako langileek protestak hasi zituzten. CME enpresako langileek protestak egin zituzten Elgoibarren eta Bilbon. Enpresak zortzi nomina zor ziela salatu zuten urtarrilean egindako elkarretaratzean.




MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegia eta arlandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3. soltoa 943 74 35 52 - 74 27 88

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantekura: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

San Roke, 7 beheko
Pel. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670





- ▲ Alberto Ortueta IMHko lehendakari izandakoa omendu zuten ikastetxearen 20. urtemugan. Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak hogeitau urte bete zituen, eta urteurrena ospatzeko eta Alberto Ortueta IMHko lehenengo presidentea izan zena omentzeko, ekitaldi handi bat egin zuten otsailaren 3an. Ekitaldian jende ezagun ugari bildu zen, tartean Patxi Lopez Jaurritzako lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia, eta Bernabe Unda Industria sailburua.

Ospas-Gaingo futbol zelaia automodelismo elkarte bati laga zion Mendaroko Udalak. Ospas-Gaingo futbol zelaia Avar kirol klubari eta Eztanda automodelismo elkarteari lagatzea erabaki zuen Mendaroko Udalak, doan eta bi urterako. Kilimon futbol taldea desagertu zenetik, kirol zelaia bazter lagata zegoen. Berritu ostean, automodelismoko hainbat txapelketa jokatu dira aurtan han.



- ▲ Segundo Raigoso zineko akomodadore ohia hil zen, otsailaren 1ean. 71 urterekin hil zen Segundo Raigoso zineko akomodadore izandakoa. Osasunez makal xamar zebilen aspaldian, eta otsailaren 1ean itxi zituen begiak betirako.





- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak
- Gabon zorion-gutunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala

Ondo pasa gabonak!

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 53 17 45 • jasona@jasonesg.com • www.jasonesg.com

GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!

prenta

ARRILLAGA

Tren geltokiz auzokalekuaren paraian
20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Tel. 943 74 01 87

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - I Tel: 943 741 189

USATORRE

Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

Jai zoriontsuak igaro!



▲ **Udal Musika Bandaren 125. urteurreneko ekitaldiak hasi zituzten.** Amsterdango orkestraren metal taldearen kontzertuak hasi zituen urteurreneko ekitaldiak, otsailaren 11n. Kontzertua San Bartolome parrokian izan zen, eta jendetza handia batu zen.



▲ **Auto bat jausi zen errekarara.** Rezola gasolindegiairean parean errekarara jausi zen auto bat goizaldeko 4:40ak aldera. Barruan zihoazen bi lagunak euren kabuz irten ziren, onik.



Joseba Zinkunegi askatu zuten. Espainiako Auzitegi Nazionalak libre laga zituen Batasunaren kontrako operazioan 2008ko otsailan atxilotutako zazpi lagun, 50.000 euroko bermea ordainduta. Horietako bat izan zen Joseba Zinkunegi, Elgoibarren bizi den eibartarra.





SARIKI
METROLOGIA

Gabon zoriontsuak!



SARIKAL
LABORATORIO





NEURKETA DIMENTSIONALENTZAKO EKIPO HORNITZAILEA
KOMITSULTORIA, PROIEKTU PERTSONALIZATUAK, FORNAKUNTZA



www.sariki.es www.sarikaLes



KALIBRAZIO LABORATEGIA ETA NEURKETA ZERBITZUAK



- ▲ **Teodosia Iriondo hil zen, 102 urterekin.** 103 urte egiteko hilabete eskas falta zitzaiola hil zen Teodosia Iriondo, otsailaren 28an. 1907ko apirilaren 2an jaio zen Teodosia, San Frantzisko kalean. Alpagatagintzan egiten zuen lan gaztetan, eta gero, Madrilera joan zen neska.



- ▲ **Guass itxi zuten.** Martxoaren 31n itxi zuten Guass diskoteka, 30 urteko ibilbidearen ostean. Bi arrazoi eman zituen Udalak. Batetik, leku egokia zela aparkaleku bat egiteko eta, gainera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusian ere, Deba ibaiaren alboan dauden enpresak eta lokalak botatzea proposatzen zela, eta bestetik, "bizikidetzaz arazo larriak" sortzen zituela. Itxierak kolore guztietako iritziak sortu zituen.



Jose Ignacio Munilla gotzainak eman zuen meza. Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzain izendatu berriak meza eman zuen. Parrokian meza eman aurretik, Santa Klara komentuan izan zen Munilla.



Gabon zoriontsuak!

**ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK.**

San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060



Bi urteko kartzela zigorra ezarri zioten Arnaldo Otegi. Espainiako Auzitegi Nazionalak bi urteko kartzela zigorra ezarri zion Arnaldo Otegi ezker abertzaleko kideari, 2005. urtean Jose Mari Sagardui Gatza presoari Zornotzan egin zioten omenaldian terrorismoa goratu izana leporatuta. Kartzela zigorraz gain, hamasei urteko inhabilitazioa ere ezarri zion.



▲ **Ziklogenesiaren eraginak.** Ziklogenesiaren eraginak Elgoibarren ere igarri ziren. Baserri auzoetan hainbat zuhaitz bota zituen haizeak. Kalterik larriena, baina, 23 urteko gazte batek jasan zuen: zapatu gauean AP-1 autopistako kartel bat bota zuen haizeak, eta elgoibartarraren autoaren gainera erori zen.



San Frantzisko kaleko etxe batek sua hartu zuen. San Frantzisko kaleko bi etxebizitza erabat kiskali ziren martxoaren 13an. Eguardian piztu zen sua, eta berehala zabaldu zen alboko etxebizitzara. Suak kalte handiak eragin zituen, baina, zorionez, inork ez zuen minik hartu.



Miguel Fernandez PSE-EEko zinegotziak kargua utzi zuen. Miguel Fernandez PSE-EEko zinegotziaren kargu utzteko onartu zuen udalbatzak martxo azken osoko bilkuran. 2007an hartu zuen zinegotzi kargua, eta lan kontuengatik jaioterrira itzultzea erabaki du aurten. Semeak, Joseba Fernandezek, ordezkatu zuen.



IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



Eibarko lau gazte hil ziren Elgoibarren, errepide istripuan. Auto batek eta furgoneta batek aurrez aurre jo zuten apirilaren 8an N-634 errepidean, Elgoibarren. Ezbeharrean 16 eta 20 urte bitarteko lau gazte hil ziren, laurak eibartarrak. Lau gazteak auto berean zihoazen.



Dantza barra ikuskizuna Mendaron. Biraka dantza elkarteak *Dantza Barra* ikuskizuna egin zen Mendaroko plazan. Deba, Mendaro, Eibar eta Elgoibarko 200 dantzarik parte hartu zuten.



ELGOIBARKO HERRI ESKOLA

*Eguberri
eta urte berri On!*



Olasoko errotonda berria inauguratu zuten. Olasoko errotonda berriak al-daketak eragin zituen Sigmako zubiko sarrera-irteeran, eta noraezean ibili ziren gidariak lehenengo eguntan. Herritik Donostia aldera irteteko bakarrik da ordutik Sigmako zubia.

Trenbide ertzeko ortuak kentzeko behin betiko agindua eman zuen Mendaroko Udalak. Eusko Trenbide Sareak egindako eskaera bati erantzunez, Igartualdea industriagunean trenbide ertzean sortutako ortuak eta eraikitako etxolak bertan behera lagatzeko eskatu zien Mendaroko Udalak erabiltzaileei. Segurtasunaren izenean hartutako erabakia izan zela argitu zuen Udalak.



BVI
bronymec

Metal Ez-Ferrikoak
Plastiko Teknikoak
Konpositeak
Mekanizazio Lanak

www.bronymec.com

ISO 9001
ISO 14001

BUREAU VERITAS
Certification

Maria Urizar

- Ileapaindegia
- Solariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489
Elgoibar

ARBELOA
INMOBILIARIA

Gabon zoriontsuak!

San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

arbeloainmobiliaria@euskalnet.net

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

- ① Zerga-aholkularitza
- ② Lan-aholkularitza
- ③ Kontabilitate aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
Tel. mugikorra: 970 497 236
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR



- ▶ **Merkadilloa erdigunera ekarri zuten.** 2006ko ekaina bukaeran eraman zuten Plaza Handitik Sigmara, eta orain, ia lau urteren ondoren, eta leku aldatze hark eragin zuen ekaitza baretu ostean, Plaza Txikira eta Leku Ederrera ekarri zuten Udalak, merkadilloari buruz egindako galdeketa batean oinarrituta.



- ▶ **HARRO2 taldea sortu zuten.** Elgoibarko gazteen eta gazte eragileen topagunea izateko helburuarekin jaio zen HARRO2, Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko taldea. Madalan egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta 150 gazte inguru bildu ziren. 16 urtetik gora, gazte sentitzen diren guztiak daukate lekua HARRO2n.



◀ **Joseba Etxeberriak futbola laga zuen.** Athletic taldean hamabost denboraldi jokatu ondoren, Joseba Etxeberriak futbola laga zuen. Historia egin du elgoibartarrak talde zuri-gorrian, Txetxu Rojo eta Jose Angel Iribarren atzetik berak jokatu dituelako partida gehien Bilboko taldearekin. 200 ume-
ren kontra jokatu zuen Athletic-ek Etxeberren omenaldiko partida.



◀ **Jesus Mari Etxeberria izendatu zuten jubilatuen egoitzako presidente.** Iñaki Insaustik jubilatuen egoitzako lehendakari kargua laga zuen 17 urteren ondoren, eta Jesus Mari Etxeberriak hartu zuen haren lekua.

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

ZAZPI
INFORMATIKA

Bernardo Ezenarro, 15 behea
Tel. / Faxa: 943 74 37 87
E-maila: zazpi@telefonica.net

20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GABON JAI ZORIONTSUAK!

NORFO

Ondo para gabonak!

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. - Tel: 943 743 140 - Faxa: 943 744 123 - 20870 Elgoibar
E-posta: norfo@norfo.es



▲ Dani Arenas laugarren sailkatu zen Espainiako fitness eta kulturismo txapelketan. Dani Arenas elgoibartarrak Valladoliden jokatu zuen Espainiako fitness eta kulturismo txapelketa, eta laugarren postua eskuratu zuen. Guztira, 50 lagunek hartu zuten parte.



▲ Arnaldo askatu, politika askatu plataforma sortu zuten. Arnaldo Otegi aske uzteko eskatzeko eta haren senideei babesa erakusteko plataforma sortu zuten adin eta ideia askotako hainbat herritarrek.



Haundi igoera fasetik kanpo geratu zen. Marino Luanco taldearen kontra jokatu zuen Haundik Bigarren B mailara igotzeko fasea, baina galdu egin zuen. Joaneko partida 0-1 galdu zuten etxean, eta Luancon jokaturako partidari 2-0 irabazi zuen talde asturiarrak.

Jon & Sugramas taldeak diskoa kaleratu zuen. Jon & Sugramas taldeak lehen diskoa kaleratu zuen. Jon Gurrutxaga Arima Beltzako abeslari ohia eta UEK taldeko bateria joleak sortutako taldea da. Ekaitz Garmendia (gitarra) eta Ivan Hernandez (bateria) azepeitarrak, eta Andoni Mujika (baxua) elgoibartarrak osatzen dute laukotea.



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tel.: 943 741 011

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO
IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren
teorikoa 16 urte bete aurretik
eta autoaren azterketa teorikoa
18 urte bete aurretik!**

Zatoz informazio eske!


BIAK
ileapaindegia

San Inazio, 4
Tel.: 943 742 725
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

KANDALO - LENTZERIA
- BARRUKO ARROPA

NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Gabon jai zoriontsuak!

San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95



- ▲ Osasun Zentroko gaueko larrialdi zerbitzua kendu zuten. Osasun Zentroko gaueko larrialdi zerbitzua kentzea erabaki zuen Osakidetzak. Ekainetik, beraz, gauez itxita egoten da Elgoibarko anbulategia. Era berean, gastuak murrizteko 46 anbulategi itxi zituzten Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian.




Anton Zubiaurre mendararra atxilotu zuten. Anton Zubiaurre Sprilur elkarte publikoko zuzendari eta Mendaroko alkate (EAJ) izandakoa atxilotu zuen Ertzaintzak, industria espioitza egotzita. Zubiaurre beste pertsona baten posta elektronikora sartzen zen ustez, "garrantzia handiko informazioa" eskuratzeko. Deklarazioa hartu eta libre utzi zuten.



- ▲ Oin-alai egitasmoa jarri zuten martxan. Umeak eskolara oinez joateko programa jarri zuen martxan Udalak. Boluntarioen laguntzaz egiten dute eskolarainoko bidea umeek. Herri Eskolaren eta Ikastolaren babesarekin jarri zuten martxan egitasmoa.

Jokin Urainek liburu berria argitaratu zuen. Ez dago etxean izeneko liburua argitaratu zuen Jokin Urain mendararra. Ihes egiteko nahiari buruzko gogoetak batu ditu pre-soak bere azken liburuan.



talleres ZAILDU^{S/L}

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prensas Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Gabon jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!**

Santa Klara, 40
Tel 943 74 07 60
Faxa: 943 74 39 95

albe, S.L.

- ▶ LAUKETAK
- ▶ MORTASAKETAK
- ▶ BROTXAKETAK

**GABON ZORIONTSUAK
ELGOIBAR!**

Sigma Industrialdea
Xixillon, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286
ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albest.com



Mendaroko Landa erretegiak Mas Gastronomía saria eskuratu zuen. Orain dela 28 urte inguru zabaldu zuten Landa erretegia, eta urte horietan guztietan egindako lanaren aitortzat jotako saria Asier Landa sukaldariak. Pedro Subijana, Hilario Arbelaitz, Andoni Luis Aduriz eta izen handiko beste hainbat sukaldariren artean jaso zuen saria mendarorarak.



Pilar ikastetxea itxi zuten. Ikasturtea amaitzearekin batera itxi zuten Pilar ikastetxea. Orain dela sei urte erabaki zuten San Vitorreko fraideek ikastetxea ixtea, eta ekainaren 12an egin zuten itxiera jaia. Eraikina Udalak hartu du, eta Foru Aldundiarekin elkarlanean Debarrenerako zahar etxea egingo dute bertan. 2014. urterako amaitzea aurreikusten dute.



Idorbe-San Pedroko elkarteak inauguratu zuten. Idorbe-San Pedroko elkarte gastronomikoa inauguratu zuten, eta aldi berean, Pako Iriondo mendizalea omendu zuten, mendizaletasuna sustatzeko urteetan egindako lanagatik.



Txarridunak irabazi zuen bigarren urtez pintxo lehiaketa. Hamabi tabernek hartu zuten parte aurtengo pintxo lehiaketan, eta bigarren urtez, Txarridunak jaso zuten epaimahaiaren saria. Lojantzik jaso zuen herritarren saria.



ETXEPE Lan bereziak

T: 943 741 297 / 943 740 664 www.etxepe.com
F: 943 744 321 etxepe@etxepe.com

AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkl.a. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 03 10
Helbidea: San Roke, 5 - 3. A - 20870 ELGOIBAR

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektirkoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

PREZISIO MUNDU BAT

MYL S.A.

Zorionak eta Urte Berri On!

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO
Tel. 943 75 70 03 - Faxa: 943 757 130
E-posta: myl@myl.es - http://www.myl.es



◀ **Udal Musika Bandak 125 urte egin zituen.** 1885eko uztailaren 1ean irten zen estreinakoz kalera Elgoibarko Musika Banda, eta 125 urte geroago ekitaldi hura bera errepikatu zuten. Bandera berria estreinatu zuten, eta Pello Arrietak bandari buruz idatzitako liburua aurkeztu. Urte osoan zehar egin dituzte ekitaldiak, 125. urteurrena ospatzeko.



▲ **Usuako iturria kendu zuten.** Usuako iturria kendu eta haren lekuan 8 urtera arteko umeentzako jolas parkea egiteko lanak hasi zituzten. 2006an inauguratu zuten iturria. Argi deigarriak zituen, baina azkenaldian hondatuta eta zikinkeriaz beteta egoten zen.

Txernobilgo eta Errusiako umeak etorri ziren uda pasatzera. Txernobilgo eta Errusiako sei ume etorri ziren uda pasatzera Elgoibarrera eta Mendarora. Pare bat hila-bete egin zituzten hemen.



▶ **Juanito Gorostiza hil zen.** Juanito Gorostiza BARRENEKO kolaboratzailea hil zen uztailaren 30ean, 84 urte zituela. BARREN sortu zenetik izan zen astekariko kolaboratzaile: "Gogoratzuz" atalean hasi zen eta erretratu zaharren atalarekin ere izugarri laguntzen zion astekariari. Azken bi urteak makal xamar egin zituen, baina ospitalean egin dituen azkeneko egunetan ere ez zen BARRENEKIN ahaztu.




San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45

Muruamendiaraz gozotegiak

Denda berria zabaldu dugu Ermuan!!
Diputazio kalea z/g - Tel.: 943 176 803

Urte Berri On!





▲ **Udalbiltzaren aldeko agerraldia egin zuten.** Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta EAJK Udaltzari babesa emateko agerraldia egin zuten. Epaiketa hasi aurreko egunetan Udaltzaren kontrako prozesua salatu zuten, eta 22 auzipetuen absoluizioa eskatu zuten, akusazioak oinarri gabeak direla arazoituta.



▲ **Etxok Potroik, Mendaroko musika talde berria.** Etxok Potroik Mendaroko musika taldeak estreinako kontzertua eman zuen, eta jendetza handia batu zen Gaztetxean.



◀ **Santa Ana ermita prest jaietarako.** Santa Ana jaiak ospatu zituzten mendarorrek, eta aurtten berriz ere egin zuten Santa Ana ermitarako erromeria. Udalak ia 200.000 euro bideratu zituen luperian jausitako mendi-hegala konpontzeko. Danborrada, erromeria, prozesioa eta koadrilen arteko jolasak izan ziren, besteak beste, Mendaroko jaietan.

estetikaalire

- * Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- * Ongizate tratamenduak
- * Masajeak
- * Fotodepilazioa
- * Mikropigmentazioa
- * Manikura
- * Solariuma
- * ...

Upaiz zahona, 1. beheko
Tel.: 943 531 636
Elgoibar

Gabon Perhorntzuak!

NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☎ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Gabon Perhorntzuak

ZUBACOR S.L.

Patxi Beitia Arriola
ZUZENDARI GERENTEA

lbeitarate kalea, 11
Tel.: 943 740 844
Faxa: 943 742 688

50 posta kutxa
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
www.zubacor.com
zubacor@zubacor.com



- ▲ Erreka jaitsiera berreskuratu zuten San Bartolome jaietarako. Gazte Asanbladak eta herriko hainbat gaztek erreka jaitsiera berreskuratu zuten. Hogei urte inguru pasatu ziren erreka jaitsiera azkenekoz antolatu zenetik, eta ekitaldiak ikusmin handia sortu zuen herritarren artean.



- ▲ Muruamendiaraz gozotegiak 75 urte egin zituen. Muruamendiaraz gozotegiak 75 urte egin ditu aurten. San Bartolome jaietako egun bakoitzerako pastel bana gomendatu zuten.



- ◀ 155.000 euroko aurrekontua izan zuten San Bartolome jaiek. 2009an baino %27,26 txikiagoa izan zen sanbartolomeetako aurrekontua, 155.000 eurokoa, alegia. Iñigo Zearsolo Kultura zinegotziak azaldu zituen jaietako murrizketak, eta besteak beste, su artifizialak kendu zituzten egitarautik.

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK

Gabon zoriontsuak!

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Iñaki Gil Azpilicueta **Ignacio Vazquez Gonzalez**
Jausoro Plaza, 3 behea e-mail: zurealde@telefonica.net
Tel.: 943 531 351 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

LA BODEGA
ERRETEGIA

GOGORARAZTEN DA
ERRETEGI HONEK
BETIKO EGUNEKO MENUA,
BOST MENU BEREZIAK
ETA KARTA
MANTETZEN DITUELA
GABONETARAKO

Pedro Muguruza, 22
Tel.: 943 742 500
943 744 008
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

karkizano

K

San Francisco, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

software garapenak

Antonio Arnillaga, 1
Tel.: 943 748 105
Faxa: 943 748 228
info@softlan.biz
www.softlan.biz

Softlan

BERTSO JAIALDIA ELGOIBARREN

**Amets Arzallus
Igor Elortza
Uxue Alberdi
Jon Maia
Julio Soto**

Gai-jartzailea: Irati Agirreazaldeg

Abenduak 28

Herriko Antzokian

22:30



'Ni ere banaiz **BARREN**' kanpaina jarri zuen marbxan **BARREN** astekariak irailan. Orain 18 urte hasitako proiektuari, eus-kara hutseko aldizkariari, eusteko 15.000 euro behar zituela-eta, bost euroko bono-laguntzak jarri zituen salgai herri aldizkariak. Kanpainaren barruan, elkartasun erretratua atera zuten irailaren 17an, eta ekitaldi hark herrian barrenzale asko daudela laga zuen agerian.



Polizia Operazioa: Guardia Zibilak itxita eduki zuen **San Inazio kalea irailaren 14an**. Egun horretan, bederatzigun atxilotu zituen Guardia Zibilak Euskal Herrian, Kantabrian, Aragoian eta Valentzian, Ekinekin lotura izatea leporatuta, eta guardia zibilek hainbat miaketa egin zituzten, Grande Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak aginduta. Elgoibarren, sindikatuek erabili ohi duten lokal bat miatu zuten San Inazio kalean, eta goiz osoz inguratuta izan zuten kale hori.



Bizipenetan eta orain arte egin duen lan artistikoan oinarritutako liburu argitaratu zuen **Lucio Ruiz-Poveda Luziano margolariak** (Elgoibar, 1931). "Artista lanean baino gehiago zentratu naiz bizitzan eduki ditudan abenturetan, ez dira-eta gutxi izan", azaldu zuen Madrilen bizi den margolari elgoibartarrak liburuaz.

EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

- *Espezialitateak: artisau ogiak, espeltak, kandealak, zerealak, artozkoak,...*
- *Betiko ogia, amatsaldetan ere beroa*

Gabon gauerako eta Eguberrirako ogi bereziak enkarguz



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88



▲ 168 lagunek hartu zuten parte estreinako gaueko krosean. Mugertza kroserako dirua biltzeko antolatu zuten Mintxeta atletismo taldeak gaueko krosa. Mintxetakoen deialdiak erantzun ezin hobea izan zuen: 168 antxitxikarik osatu zuten zazpi kilometroko ibilbidea.



▲ Plaza Txikia "bizi-bizia" zen garaiko oroitzapenak gogora ekarri eta ize-
nez txikia den plazari merezi duen aitortza emateko, Plaza Txikiko As-
tea antolatu zuten dozena bat elgoibartarrek, Udalaren laguntzarekin.
Irailaren 25etik urriaren 3ra bitartean hainbat ekintza prestatu zituzten:
Mingorance txarlatanaren jardunaldia, antzinako joko eta jolasen era-
kustaldiak, Plaza Txikiko erretratu zaharren erakusketa, e.a. Lagunarte-
ko bazkaria ere oso arrakastatsua izan zen, ia 300 lagun elkartu ziren-
eta. Taupada antzerki taldeak jai horretarako apropos prestatu zuten
Komediak Oroimenean antzezlanak ere jendetza erakarri zuen.



Sasoi batean normala zena al-
biste bihurtu zen irailaren 7an.
Egun horretan jaio zen Oier Gi-
meno, Mendaroko Etxabe base-
serrian. Orain dela 70 urte jaio
zen azkenengoz ume bat
Etxaben, eta gainerako base-
rrietan ere apenas jaiotzen
den haurrik gaur egun. Oierren
amak, baina, ez zuen ospitale-
ra allegatzeko astirik izan,
Mendaroko Ospitaletik bost-
hamar minutu eskasera bizi
badira ere. Baserriko komune-
an jaio zen Oier, eta ospitaleko
erizain eta emagin taldeak ere
sorpresaz hartu zuten berria.



Mikel Ibañez preso (Elgoibar, 1955) kartzela-
ratu egin zuten berriro. Gaixotasun larriagatik,
(minbizia du eta elbarritasun handia) 2008tik
etxean ari zen betetzen zigorra, baina joan den
abuztuaren 10ean berriro kartzelan sartu zu-
ten. Berriro sartu aurretik, Ibañezek bai-
mena eskatu zuen ordu batzuk kalera atera-
tzeko, oinez ibiltzea beretzat osasungarria li-
tzatekeelakoan. Auzitegi Nazionaleko fiskalak,
baina, espetxean sartzeko eskatu zuen, han
oinetz ibiltzeko aukera izango zuela-eta. Amnis-
tiaren Aldeko Mugimenduak gaixo dauden
presoekin egiten ari direna salatu zuen.



Zorionak eta urte berri on!



MAPFRE



San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07 - E-posta: patxiza@mapfre.com

Urriaren 12a, Pilarika Eguna, gurpil gainean pasa zuten lagun askok. Izan ere, San Pedroko igoera eta Debabarrena BTT proba jokatu ziren egun berean. San Pedroko igoeran 44 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lazkano mendaroarra nagusitu zen denen gainetik, 14:41eko denborarekin. Mendi bizikleta proban, berriz, 368 lagunek parte hartu zuten. Gipuzkoa osotik etorri zen jendea eta baita Bizkaitik, Arabatik eta Miranda de Ebrotik ere. ▶



Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zaintzapeko etxe berria inauguratu zuen Agifesek Elgoibarren, Pedro Muguruza ikastetxeko irakasleek bizitoki moduan erabiltzen zituzten etxeetan. Ehun metro koadro inguru ditu etxeak, eta zazpi pertsona hartzeko pentsatuta dago. Etxea Elgoibarko Udalak lagatakoa da, eta barnealdea, berriz, Kutxaren Kutxazabal programari esker berritu dute. 164.000 euroko kostua izan zuen guztira. ◀

Marina Furian, erromes bitxi eta ezohikoak pare bat eguneko atsedenaldea hartu zuen Elgoibarren. Vanda zaldia eta Joel txakurrarekin, zaldi-gurdiz ekin zion italiar honek Donejakue bideari, apirilaren 25ean, Venezian, eta Santiagora arte (Galizia), 2.400 kilometro inguruko bidea osatzen ari zela ailegatu zen Elgoibarrera. ▼



Ainara Ladron elgoibartarra kartzelatzeko agindu zuen Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Urriaren 23an atxilotu zuen Espainiako Poliziak Ainara Ladron, Segiren zuzendaritza berriro osatzeko bilera eta bilkuretan parte hartzea leporatuta, beste hamahiru lagunekin batera. ◀



GABONETAN ITXI
EGINGO DUGU

JAI ZORIONTSUAK
GUZTIONTZAT!!!!

TEL.: 943 748 531



▲ Abutxiamaikak, Elgoibarko Izarra kultur elkartearen aisialdi taldeak, hamabost urte bete zituen urriaren 16an. Urteurren hori ospatzeko, Atutxiamaikako gaur egungo hezitzaileek jai handi bat antolatu zuten gaurko eta atzoko lagunekin.



▲ Ibitzeko nahiz antxitxika egiteko pista berria, 1.078 metroko ibilbidea, inauguratu zuten urrian, Mintxetan. Agintariez gain, Estatu krosen antolatzaileek (ANOC Fundazioa) parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian, eta ondoren, zinta moztu ostean, Elgoibarko bost atletek korrika osatu zuten ibilbidea. Jose Antonio Ruiz izan zen azkarrena, 3:08ko denborarekin.



▲ Urriaren 8a Gotzon Garate omentzeko baliatu zuten elgoibartarrek. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak Gotzon Garatek *Atsotitzak* liburuan batutako esaera zaharren irakurketa antolatu zuten. Hamar orduz Gotzon Garateren lana gogoratu zuten 600 euskaltzalek.




Ane Beitiak Jon Zubiaurre ordezkatu zuen zinegotzi karguan. Jon Zubiaurrek lagatako zinegotzi kargua hartu zuen Ane Beitia elgoibartarrak (EAJ). Osoko bilkura batean egin zuten zinegotzi berriaren aurkezpena, eta Lucio Beitia Elgoibarko alkate izandakoa eta Aneren aita bertan izan zen, alabari babesa emateko.



LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA



TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54



▲ 'Todos somos diferentes' (Denok gara ezberdinak) argazki, ipuin eta kontaketa laburren lehiaketa irabazi zuen Jairo Berbel kazetaritza ikasle elgoibartarrak, Kongon orain urtebete inguru egin zuen argazki batekin. Afrikako haurtzaroaren ibilbide luzea izenburua jarri zion Berbelek saritutako argazkiari. Kongora egindako bidaia hartan hartutako irudiekin *El lugar de las sonrisas* izeneko dokumentala ere osatu du Berbelek.



▲ **Lerun Txiki baserria bota zuten azaroaren 12an.** Jabearen eskariz bota zuten okupak bizi ziren baserria, "zahartuta eta erortzeko arriskuan" zegoelako. Okil Beltzak taldekoek kortako sabaian pare bat zulo zeudela esan zuten, baina gainerakoan baserria egoera onean zegoela. Inguru horretan 10.500 metro koadroko industrigunea egiteko proiektua dago, eta Okil Beltzak taldeak Lerun Txiki industrigunea egiteko plana baliogabetzeko eskatu zion urrian EAEko Auzitegi Nagusiari. Planaren kontrako auzi-errekurtsoa aurkeztu zuten, eta planak "bakar-bakarrik" interes ekonomikoei erantzuten ziela salatu zuten Okil Beltzakoek.



Asmaola zentro berritzailea sortzeko hitzarmena sinatu zuten IMHK eta Kutxak. Industriaren berrikuntza sustatzeko egitasmoa da Asmaola, eta enpresa txikiei proiektu eta ideia berriak martxan jartzeko laguntza eskatzea da helburua, enpresa txikiak ere merkatuan lehiakorak izan daitezzen. Albitzuriko industrigunean kokatuko dute enpresa berria, eta 2011ko bigarren erdirako martxan jartzeko asmoa azaldu zuten.

ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141

Haurreskolak
www.haurreskolak.net



▲ **Modesta Fernandez de Jauregik** 100 urte egin zituen azaroaren 4an. Sasoi betean dagoela eta burua argi-argi daukala erakutsi zuen BARRENI eskainitako elkarriketan. Hegazkinez lehenengo bidaia 80 urterekin egin zuela kontatu zuen, besteak beste, eta ordutik, hogeita bost aldiz ibili dela hegazkinean.



▲ **Gure Bide elkarte gastronomikoak liburu bat argitaratu zuen elkartearen 50. urtemugan.** Koldo Lizarralde eta Laurentzi Gorostiza Gure Bideko bazkideek elkarlanean idatzitako liburua da. Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Gure Bide elkarteak urtero antolatzen duen Etxaniz Memorialean parte hartu izan duten hainbat txirridulari ezagun ere izan ziren.

Elkartea irekiagoa egiteko ideiak landu zituzten Morkaiko Mendizale Elkartearen gaineko gogoeta saioan. Era horretako estreina-nako gogoeta saioa izan zen, eta berrogei bat lagun elkartu ziren Sallobente-Ermuarango Azaola baserrian. Antolatzen dituzten irteeretara jende berria erakartzeko dituzten zailtasunei buruz berba egin zuten, eta elkartea herritarren interes eta beharretara egokitu eta berritu beharrez ere jardun zuten. Azkenik, espezializazioaren bidean sakontzeko beharra zegoela ondorioztatu zuten. Zuzendaritzakoek balorazio "oso positiboa" egin zuten.



ESTUDIOS ARRILLAGA



- ▲ **ERREFORMAK**
- ▲ **LOKAL KOMERTZIALAK**
- ▲ **ETXEBIZITZAK**

Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98

Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19





- ▲ 10 bai taldeak Astelena (Elbar) pilotalekura eraman zuten hamar koadroko frontoiaren aldeko aldarrikapena, Irujak eta Gonzalezek jokatu zuten lau t'erdiko partidan. Herriko pilotazale talde batek sortu du aurten 10 bai, eta "ganorazko" frontoi bat aldarrikatzeaz gainera, txapelketak ere antolatu dituzte, pilota zaletasuna bultzatzeko asmoz. Plaza Handiko pilota txapelketako estreinako txapelketan, Txurruka anaiek jantzi zuten txapela. Pala txapelketan, berriz, 18 bikotek eman zuten izena, baina lerro hauek idazteko unean, zehaztu gabe zegoen artean finala.



- ▲ Urrezko Super saria eskuratu zuen Mautitxako gaztak World Cheese Awards lehiaketan. Birminghamen (Erresuma Batua) egin zen munduko gazten txapelketa, eta Idiazabal jatorri izendapeneko gaztandegiek 41 sari eskuratu zituzten. Mautitxako gaztak, bestalde, brontzeko domina ere jaso zuten, lehiaketako beste kategoriatan.

Kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren aldeko mezua zabaltzea izan zen azaroaren 25ean egin zen Kontsumo Iraunkorraren eta Arduratsuaren I. Feriako antolatzaileen helburua (Emaus, Biolur, Econat, Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta herriko ikastetxeak), eta halaxe egin zuten. Bigarren eskuko produktuen merkatua, etxeko hondakinak gaika sailkatzearen garrantzia azaltzeko postua edo plaka fotoboltaikoen funtzionamendua azaltzeko mahaia jarri zituzten, besteak beste.



URKIOLA

Zorionak eta Urte berri on!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 742 073

MILAR

BIRE

Ubitarte, 11
Tel.: 943 741 487
bire@milar.es

Zorionak eta urte berri on!

159 €



SCHNEIDER LCD TELEBISTA

19"
EXIA HD
Bereizmen handiko TDTa
Hotel - modua
Common Interface

99'99 €



SUNSTECH DVD ERAMANGARRIA

Bateria kargagarria
Txartelen irakurgailua
Autorako egokigailua

399 €



PANASONIC TELEBISTA

32"
HDMI 2 konexio
IPS - ALPHA panela
Bereizmen handiko TDTa
SD txartelen irakurgailua

149'90
€-tik aurrera



SOLAC BERO - IGORGAILUA

ET8934/36/38/40/42
500w/750w/1000w/1250w/1500w
4/6/8/10/12 elementuak
Termostato elektronikoa

Sustapen honek izakinak ahitu arte balio du.
Etor zaitetz gure dendara eta katalogo bat emango dizugu eskaintza gehiago ikus ditzazun!



Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta

Urte berri on

2011

opa dizue

Ola kalea 10
LASARTE-ORIA
San Bartolome kalea 22
ELGOIBAR
Tel.: 943 366 377





EUSKO ALKARTASUNA

Urte Zaharra galtzear
Berria agurtu behar,
batzutan irriz etorri da ta,
zenbaitetan negar,
ekiogun ba denok bat,
batuta milaka indar,
denok batera aurrera egin
dezagun Elgoibar

Zorionak eta Urte berri on!



Kudeaketaren
Kalitateari
2 0 1 0



zuentzat eta zuekin
eguneroko jardunean
etorkizuna ereiten

EGUBERRION

elgoibar ikastola

☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net
www.elgoibarikastola.net

EGURALDI HOTZA, BAINA JAI GIRO PAREGABEA

Kontzezio azoka egunerako iragarpenak bete egin ziren, eta behingoagatik portatu zen eguraldia, mendararren zorionerako. Goizean goiz ekin zioten udaletxeko beharginek azokako postuak jartzeari, eta goizean mugimendu gutxi egon bazen ere, eguerdi alderako hasi zen jendea batzen Herriko Enparantza ingurura. Azokatik osteratxo bat egin, eta herriko dantza eskolako ikasleek urtean zehar ikasitakoaz eta herri kirolez gozatzeko aukera izan zuten plazan bildu zirenek. Zalantzarik gabe, baina, idi-probek eman zuten zeresan handiena. 29 urteren ondoren, idiak itzuli ziren Garagartzako plazara, eta jendetza handia erakarri zuten. Elgoibarko Soarte eta Eibarko Areta baserriko idi-pareak lehiatu ziren, eta elgoibartarrak nagusitu ziren, 55 plazarekin (Aretak 45 egin zituen). Ez ziren hor amaitu jaiak, hala ere. Kontzezio Eguna, hilaren 8a, Anjel Bazterretxea abadea omentzeko baliatu zuten mendarorek. Meza nagusiaren ostean, Eibarko Kezka dantza taldeak dantzaldia eskaini zuen Garagartzan, eta jendetza handia batu zen. Argazki gehiago eta bideoak www.ElgoiBARREN.net helbidean.



Dantza eskolako gaztetxoak, plazan.



Kezka dantza taldekoen erakustaldia Garagartzako plazan.



Gaztetxeoak, taloak prestatzen.



Sasoian sasoiko produktu onenak, frontoian.



Mendaroko dantza eskolako erakustaldia, plazan.



Ernesto Ezpeleta "Bihurriren" erakustaldia.



Anjel Bazterretxea abadeari egindako omenaldiko irudi bat.



Mendaroko dantza eskolako gaztetxoek ikuskizunak jendetza handia erakarri zuen.



Umeek ere gozatu zuten azokaz.



Soarteren idi pare, ahalegin betean.



Maite Mendikute eta Igor Ezenarrok jaso zituzten jantzi dotoreenari emandako sariak.

m mendaro
ikastola

Mendaroko ikastolako TXOKOLOREN partez zorionak eta urte berri on!

PAGOERROTA
iturgintza

- Iturgintza
- Gas
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Sakelekoa: 659 334 323
www.pagoerrotaiturgintza.com - pagoerrotai@pagoerrotaiturgintza.com

MERKATU PLAZA

Uste duzuna baino gehiago!



Amaia FRUTADENDA



MARI HARATEGIA



Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA



M. Angeles
FRUTADENDA



Arantxa eta Marian
FRUTADENDA



TXILARRE BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



Zabala FRUTADENDA



TXIRIBOGA TABERNA

Gabon zoriontsuak denoi!

Gaur banatuko dituzte 2010eko kirol federatuaren urteko sariak

Sariak banatu aurretik mendizaletasunari buruzko mahai-ingurua egingo dute


Kirol federatuaren urteko sariak banatuko dituzte gaur arratsaldean musika eskolako auditorioan. 19:00etan hasiko da ekitaldia, baina sariak banatu aurretik, mendizaletasunari buruzko mahai-ingurua egingo dute. Mendizaletasunean lehiaketak eduki behar duen lekua izango dute hizpide, eta horretarako, gaian adituak diren lau lagun gonbidatu dituzte: Mikel Valdivieso Ehunmilak probako antolatzailea, Luis Alejos *Pirenaica* aldizkariko idazlea, Maite Maiora korrikalaria eta Andoitz Agirrego-mezkorta Morkaikoko presidentea.



Morkaiko
JOSU MERINO
(Mendizaletasuna)



Sanlo
JOSEBA ARANZAMENDI
(Eskubaloia)



Mintxeta
KORO SABANDO
(Atletismoa)



Olaizaga karate
taldea
IÑIGO BARRENETXEA
(Karatea)



Lagun Taldea
**JOSE LUIS
RAMOS PEREZ**
(Txirrindularitza)




Txusko
IBON BERISTAIN
(Motoak)



CD Elgoibar
SERGIO GONZALEZ
(Futbola)



Elgoibarko
igeriketa taldea
JOSE ANGEL AGIRRE
(Igeriketa)



Elgoibarko areto
futbol taldea
GORKA MERINO
(Areto futbola)



Elgoibarko
saskibaloia taldea
ASIER MURUA
(Saskibaloia)




La Union
JOSEBA AIZPIRI
(Ehiza)



40-15
PEDRO PEREZ
(Tenisa)



San Migel
bolo taldea
XABIER LOIOLA
(Boloak)



Lagunak
MIKEL AGIRREBEÑA
(Pilota)



Elgoibarko
xake taldea
MIKEL FIDALGO
(Xakea)




Egokran
MANU MORA
(Judoa)



Zarta arkulari taldea
JAVIER VARONA
(Arku tiraketa)



Kirol Patronatua
FERMIN ARRESE
(Atletismoa)



Kirol Patronatua
AINHOA LENDINEZ
(Triatloa eta duatloia)



Kirol Patronatua
KORO GABIOLA
(BTT, txirrindularitza
eta triatloia)

Koadrilen arteko Gabonetako txapelketa bertan behera geratu daiteke parte-hartze eskasagatik

Gutxienez zortzi talde behar dira txapelketa jokatu ahal izateko

Egoibar Xake Taldeak koadrilen arteko Gabonetako txapelketa antolatatu du, baina baliteke txapelketa bertan behera geratzea, parte-hartze eskasagatik. Edizio hau ixteko unean [barixaku goizean] hiru talde bakarrik zeuden izena emanda, "gutxiegi". Txapelketa jokatzeko, gutxienez hamabi taldek izena eman behar zutela jari zuten baldintzat antolatzaileek hasieran, baina parte-hartzea uste baino txikiagoa izaten ari zela ikusita, zortzi edo hamar taldek izena emanaz gero, aurrera egingo zutela jakinarazi dute joan zen eguenean. Antolatzaileek ohartarazi dute jenderik gabe ezin dela txapelketa egin, eta izena ematera deitu dituzte herriko koadrilak.

Torneoko partaideek lau kiroletan eta karta jokoan neurtu beharko dituzte indarrak: bizikletan, korrika, sokatiran, areto futboleant eta musean. Kirol bakoitzeko irabazleek garaikurrak jasoko dituzte, eta sailkapen orokorreko irabazleek, berriz, afari bat eta paintball saio baterako sarre-rak.

Gabonak eta kirola uztartzeko eta he-



rritarrei kirol desberdinak praktikatzeko aukera eskaintzeko antolatu zuten txapelketa, eta baita garai batean txapelketa honen harira sortzen zen giroa berreskuratzeko ere. 1999an egin zen azkenekoz Gabonetako txapelketa. 2000. urtean ere saiatu ziren, baina azkenean ezin izan zuten egin, oso jende gutxi eman zuelako izena.

EGITARAUA

23, EGUENA

19:00 Txirrindularitza
Estazio kaletik Erretxindira.
22:00 Mus txapelketa
Toletxe tabernan.

26, DOMEKA

16:00 Areto futbola
Olaizaga kiroldegian.

27, ASTELEHENA

22:00 Areto futbola (final laurdenak)
Olaizaga kiroldegian.

28, MARTITZENA

18:30 Korrika eta sokatira
Plaza Handian.

29, EGUAZTENA

19:00 Areto futbola (finalerdia)
Olaizaga kiroldegian.

30, EGUENA

19:00 Areto futbola eta sokatira (finalak)
Olaizaga kiroldegian.
20:30 Sari banaketa
Olaizaga kiroldegian.

Joseba Etxeberria Realeko eta Athleticen jokari izandakoa omenduko du Euskal Federazioak

Joseba Etxeberria omenduko du Euskal Federazioak Venezuelaren aurkako norgehiagokan, abenduaren 29an. Euskal selekzioarekin partida gehien jokatu dituen jokalaria izan da elgoibartarra, eta horregatik urrezko ikurra emango dio Federazioak. Gainera, Etxeberria berak egingo du ohorezko sarea San Mamesen.



Jaioberrientzako igeriketa ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak jaioberrientzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu, hiru hilabete eta 2 urte artean dituzten umeentzako. Urtarrilaren 14an hasiko da ikastaroa, eta saioak barixakuetan izango dira, 16:00etatik 16:30era eta 16:30etik 17:00etara. Guztira hamabi saio izango dira, eta Kirol Patronatuko arduradunek jakinarazi dutenez, saio horietan igerilekuko ura 33 gradutan egongo da. Ikastaroaren prezioa 156 eurokoa da (Patronatuko bazkideentzat 120 eurokoa). Izena emateko epea urtarrilaren 5ean amaituko da.

Eskubaloian trebatzeko ikastaroa antolatu du Sanlok Gabonetarako

Izen handiko entrenatzaileek emango dituzte eskolak

Eskubaloiko ikastaroa antolatu du Sanlo eskubaloi taldeak 2001. urtean jaiotako gaztetxoentzako. Izen handiko entrenatzaileek emango dituzte eskolak, abenduaren 27an eta 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an, 15:15etatik 17:00etara. Ikastaro horietan Elgoibarko gaztetxoek gain, Mendaroko eta Debako neska-mutilek ere parte hartu ahal izango dute, beti ere aurrez izena emanda (abenduaren 17an itxi zen izena emateko epea). Mendaroko eta Debako gaztetxoak euren herrietako tren geltokietan batuko dituzte Sanloko begiraleek, eta entrenamenduak amaitu ostean, jasotako lekuan bertan entregatuko dituzte.

Juanma Lopez Asobal ligako jokalaria, Arrateko entrenatzaile eta Euskadiko jubenilen hautatzaile izandakoak emango du estreinako eskola, abenduaren 27an. 28an, berriz, Pablo Aranzeta gaur egungo Arrateko entrenatzailearen txanda izango da. Urtarrilean, berriz, Jose Ignacio Altube eta Imanol Alvarez etorriko dira, eskolak ematera. Jose Ignacio Altube Atletico Madrildo, Arrateko eta Bidasoako jokalaria eta



Euskadiko selekzioko hautatzailea izandakoa da Altube, eta egun Ereintza taldeko entrenatzaile da. Imanol Alvarez, berriz, Arrate eta Barakaldo taldeetan jokatutakoa da, eta gaur egun Arrateko lehenengo mailako taldea entrenatzen du.

Gaur erabakiko da xake txapelketa

Gaur erabakiko da Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Hilaren 14an hasi zen txapelketa, punta-puntako xake jokalariekin, eta gaur egingo dute sari banaketa, 18:00etan, pleno aretoan.

Elgoibarko Lagun Taldearen zozketa

Elgoibarko Lagun Taldeak egin du errifaren zozketa, eta Julen de Blasi egokitu zaio saria: bi lagunentzako afaria Gabi jatetxean.

Izotz gaineko hockey txapelketa

Elgoibar Ikastolak, Herri Eskolak, eta Udal Kirol Patronatuak izotz gaineko hockey txapelketa antolatu dute hilaren 29rako, 9:00etatik 13:00etara.

ASESORIA GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laborala
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Fax: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@euskalnet.net

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 742 674

Jarri ezazu zure publizitatea

B

BARREN
astekarían
943 743 704

Sei gaztagilek hartuko dute parte Urteko Gazta Txapelduna lehiaketaren hirugarren edizioan

Urtean zehar txapelketaren bat irabazitako gaztagileak etorriko dira

Gabon Zahar Feria egunean egingo dute Urteko Gazta Txapelduna lehiaketa, Kalamua elkarteak eta Udalak antolatuta. Aurten, sei gaztagilek hartuko dute parte, eta haien gazten artetik aukeratu dute urteko gaztarik onena. Hauek izango dira partaideak: Araia-ko Puy Arrieta (Azpeitia, Bergara eta Aguraingo txapelduna), Zeraingo Javier Muñoa (Plentziako txapelduna), Mausitxa (Araia-ko eta Elgoibarko txapelduna), Ricardo Remiro (Uharte eta Iruñako txapelduna, eta Urteko Gazta Txapeldunaren bi edizioetako irabazlea), Durangoko Itxaso Barrenetxea (Abadiño-ko irabazlea) eta Idiazabalgo Aranburu elkarte (Legazpi, Ordizia, Hondarribi, Bilbo, Gernika eta Eibarko irabazlea).

Epaimahaiko kideak 12:00ak aldean hasiko dira gaztak probatzen, eta 13:00etan egingo dute sari banaketa. Sari bakarra egongo da, eta urteko gazta txapeldunaren jabeak 1.500 euro, garaikurra eta txapela jasoko ditu.



Iker eta Irene Alonso neba-arrebek irabazi dute jaiotzen lehiaketa



Joan zen asteburuan egin zuten 14 urtetik beherakoentzako jaiotzen lehiaketa, eta Irene eta Iker Alonso neba-arrebek saritu zituzten. Bigarren saria Garcia Abad lehengusuen artean eginiko jaiotzak eskuratu zuen, eta hirugarren saria Iosu Leniz eta Oier, Unai eta Leire Eguren-ek osatutako taldearentzat izan zen. Epaimahaiko kideek esandakoaren arabera, aurten lan handia egin dute guztiek, eta erabakia hartzea "zaila" izan zaiela adierazi zuten. Guztira 29 lan aurkeztu zituzten, material eta mota desberdinetakoak. Jaiotza guztiak Errosario kaleko 7. zenbakian dagoen lokalean egongo dira ikusgai, urtarillaren 7ra arte.

Hilaren 23ra arte salduko dituzte bertso saiorako sarrerak Elgoibarko Izarran

Elgoibarko Izarrak antolatutako Gabonetako bertso jaialdirako sarrerak aurrez erosteko azken eguna datorren eguna izango da, hilaren 23a. Egun horretatik aurrera, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan (abenduaren 28an) salduko dituzte, Herriko Antzokian. Sarrerak bederatziko euro balio ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideentzako: sei euro).

Bertso saioa gaueko 22:30ean hasiko da, eta aurten ere izen handiko bertsolariek hartuko dute parte: Amets Arzallus, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Julio Soto. Irati Agirreazaldegik jardungo du gaiak jartzen.



Olentzeroren kalejira 10:45ean hasiko da Madalako parkean

Atxutxiamaikak egitarau zabala prestatu du

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak egitarau zabala prestatu du abenduaren 24rako. Eguna gogotsu hasteko, 7:30ean diana egingo dute, eta jendeari baserritarrez jantzita joateko deia egin diete. Era berean, Olentzeroren eta Mari Domingiren PINa ez ahazteko eskatu dute antolatzaileek. 10:45ean Olentzero eta Mari Domingiren kalejira hasiko da Madalako parkean, eta herriko kaleak zeharkatu ondoren, Plaza Handiraino iritsiko da. Han, Gabonetako idazlehiaketako sariak banatuko dituzte, eta ondoren, herriko umeen gutunak jasoko dituzte.

Horrez gain, Atxutxiamaikak txosna jarriko du aurten. Jana eta edana banatuko dituzte, eta taloak ere jarriko dituzte salgai.



25 euro ordainduta 40 euroko erosketa egin daiteke Kulturabonoarekin

Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Kulturabonoa egitasmoarekin bat egin du, eta boro hori eskuratzen duenak, 40 euroko erosketa egin ahal izango du, 25 euro ordainduta. Kulturabonua Kutxan eskuratu daiteke, Servi-kutxaren bidez.

Kulturabonoarekin, bestalde, Elgoibarko Udalak, Herriko Antzokiko pelikulak ikusteko hamar sarrera erosteko aukera ematen du. Pelikula horiek Kultura Sailak edo Ongarri zineklubak antolatutakoak izan daitezke. Sarrera horiekin maiatzaren 10a baino lehen Herriko Antzokian antolatutako edozein pelikula ikusi ahal izango da. Bonoa urtarrilaren 20rako eskuratu behar da.

Elgoibarri buruzko 8.500 egutegi argitaratu ditu Udalak



Joan zen astean egin zuten 2011ko egutegirako argazki lehiaketako sari banaketa, eta bide batez, egutegia bera aurkeztu zuen Euskara Sailak. Aurten ere hamabi erretratu saritu dituzte, hilabete bakoitzeko bat, hain zuzen ere. Sari-dunek hirurogeina euroko saria jaso dute, saritutako argazki bakoitzeko. 8.500 ale kaleratu ditu Udalak, eta Kultur Etxean edo arreta bulegoan eskura daitezke. Hauek dira argazkigileak: Jose Inazio Izagirre (urtarrila), Jesus Ladron (otsaila), Alberto Fernandez (martxoa), Andoni Etxeberria (apirila eta abendua), Andoni Segundo (maiatza), Eulogio Mancebo (ekaina eta iraila), Angel Maria Vicario (uztaila), Mari Jose Estibaritz (abuztua), Miren Gurutze Ariznabarreta (urria), eta Imanol Cerdeira (azaroa).

Pirritx eta Porrotxen saiorako sarrerak, Kutxa bidez



Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldirako sarrerak Kutxaren bidez erosi behar dira, eta horretarako hiru aukera daude: Internetez eskuratu daitezke www.kutxa.es helbidean (0,85 euroko gainkarga du horrek), telefonoz 943 001 200 zenbakira deituta ere erosi daitezke (Horrek euro bateko gainkarga dauka), eta Kutxako kutxazainean (horrek ez dauka gainkargarik). Lagun bakoitzak lau sarrera erosi ahal izango ditu gehienez.

Urtarrilaren 9an etorriko dira Pirritx eta Porrotx pailazoak Elgoibarrera, *Ongi etorri Pupu eta Lore* izeneko emanaldia aurkeztera. Bi saio eskainiko dituzte, 16:00etan lehenengoa, eta 18:30ean bigarrena.

Emilia Nogales

MARGOAK

Trenbide kalea 11, behea

Tel: 943 743 568

686 224 421



Urte berria hasteko, jantzi ezazu kamiseta edo boltsa berezi bat.

Oparitu ezazu koadro bat gabonetan!

Emilia Nogalesek Urte Berri On bat opa dizue!

GOKI ERREFORMAK

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Patxadak

Olaso pol., 15 - 68
Pab.
20870 **ELGOIBAR**
Tel. 943 74 28 80 / 943 74 42 23/
/ 943 74 46 40 - F 943 74 45 87

Irizar ibilbidea, 1 behea
20570 **BERGARA**
Tel. 943 76 53 42
Faxa 943 76 52 16

Teillatuak



Barruko obrak



ONGI iturgintza


BAINUGELAK • GASA • KLIMATIZAZIOA
ENERGIA BERRITAGARRIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 11-behea
20870 **ELGOIBAR** Gipuzkoa
Tfn. 943 25 45 22
Faxa: 943 25 45 23
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



*Finantzazio aukera ezberdinak.
Etorri eta galdetu.*





• Zorionak, txapeldun, atzobost urte egin zenituelako. Muxu handi bat guztion partez.



• Belarritik tiratzean, zoriorenak eta muxu bat zuretako, **Maria**. Bereziki, Alainen partez.



• Zorionak, **Nagore**, abenduaren 12an 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.




• Zorionak, **Danel**, abenduaren 22an 8 urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Uxueren partez.



• Zorionak, **Maialen!** 12.000 muxu, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Beñat**, zure zazpigarren urtebetetzean. Ondo pasa eta hasi txistorra prestatzen!



• Zorionak, **Julen**, zure hamabigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Elene**, abenduaren 9an 3 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen partez.



• Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu genuen zure laugarren urtebetetzeko ospakizunean!



• Zorionak, **Iker!** Aitaxo, amatxo eta amonaren partez. Askok maite zaitugu.



• Zorionak, **Maria**, hilaren 16an 8 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, ahizpa Aneren partez.



• Zorionak, eta lau muxu potolo gabonetako izarrari. Etxekoan partez.



• Zorionak, eta muxu asko! Gogor itzali sei kandelak hilaren 28an!



• Zorionak, **Ane**, abenduaren 11n 4 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat, lagunen eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Eneritz eta Mikel**, Maia jai delako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Martin!** Ostiralean 3 urte! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki Unairen partez.



• Zorionak, **Urko**, hilaren 16an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Eider**, bihar 12 urte beteko dituzulako. Ondo pasa gelako lagunekin, eta muxu bat gurasoen eta Goizerderren partez.



• Heldu dela, **Oier!** 6 urte azkenean. Super zorionak! Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Nerea**, hilaren 10ean 9 urte egin zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, Danelen eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Roke** zure bederatzigarren urtebetetzean. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Naroal** Oso ondo pasa genuen zure egunean! Zazpi patxo potolo, bereziki, Paula, June eta Marinaren partez.




• Zorionak, **Klara**, abenduaren 21ean 3 urte handi egingo dituzulako. Muxu potolo bat, bereziki Telmoren partez.



• Zorionak, **Julen eta Nerea**, 5 eta 2 urte egin dituzuelako. Muxu bat etxeko printze eta printzari, etxekoan partez.



• Zorionak, **Oinatz eta Markel**, 5 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Amaia eta Goiuriren partez.



• Zorionak, **Markel eta Oinatz**, hilaren 24an 5 urte egingo dituzuelako. Oxel, Aratz, Aimar, Amaia eta bereziki, Goiuriren partez.



• Zorionak, **aititta eta Elene**, hilaren 16an eta 19an urteak egin dituzuelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, abenduan zuen urtebetetzea delako. Muxu handi bat etxekoan partez.

Erretratu bakarrekogurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: **10 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **URTARRILAREN 3rako** ekarri behar duzu. **BARENeko** bulegora **13:00ak** baino lehen, edo **barren@elgoibarkoizarra.com** e-postara bidali.

OKINDEGIA

26 domeka **EIZAGIRRE**
2 domeka **FOTERO**
6 eguena **IBARRENEA**

FARMAZIAK

	24 ORDUZ
21	Ibañez
22	Garitaonandia-Bidasolo
23	Ettxeberria (<i>Santa Ana</i>)
24	Ettxeberria (<i>Errosario</i>)
25	Ettxeberria (<i>Errosario</i>)
26	Yudego
27	Zabaleta
28	Ettxeberria (<i>Errosario</i>)
29	Ibañez
30	Garitaonandia-Bidasolo
31	Garitaonandia-Bidasolo
1	Garitaonandia-Bidasolo
2	Fernandez
3	Yudego
4	Zabaleta
5	Ettxeberria (<i>Errosario</i>)
6	Ibañez

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik
www.elgoiBARREN.net



21 martitzena

Kirola

18:00 Xake txapelketa
Nazioarteko Xake Txapelketako sariak banatuko dituzte.

Gabonak

17:30 Jaiotza mekanikoa
Jaiotza mekanikoa zabalduko du Elgojaitza taldeak. Gabon jaiak amaitu arte egongo da ikusgai.

Musika

19:00 Gabonetako jaialdia
Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek jaialdia eskainiko dute, San Agustin aretoan.

Kirola

19:30 Kirol sarien banaketa
Urteko kirol sariak banatuko dituzte, eta aurretik mendizaletasunari buruzko mahai-ingurua egongo da. Musika Eskolan.

22 eguaztena

Musika

20:00 Gabonetako kontzertua
Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, San Bartolome parrokiari.

23 eguena

Ipuin lehiaketa

19:00 Sari banaketa
Gabonetako ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte Mendaroren. Udaletxean.

24 barixakua

Gabonak

10:45 Olentzeroren kalejira
Atxutxiamaiak antolatuta, Madalatik abiatuko da Olentzeroren kalejira. Herria zeharkatu ondoren, eskutitzak jasoko ditu Plaza Handian.

Gabonak

12:00 Abesbatzaren kalejira
Parrokiako abesbatzak kalejira egingo du, Gabon giroko abestiak kantatuz.

Gabonak

17:00 Olentzerori ongi-etorria
Mendaron
Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek Olentzerori ongi-etorria egingo diote. Garagartzako eliza aurrean elkartuko dira.

Gabonak

18:00 Bandaren kalejira
Udal Musika Bandak Gabonetako kalejira egingo du.

28 martitzena

Bertsolaritza

22:30 Gabonetako bertso jaialdia
Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian. Bertsolariak: Amets Arzallus, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Julio Soto. Gai jartzailea: Irati Agirreazaldegi.

29 eguaztena

Kirola

9:00 Hockey txapelketa
Leku Ederko patinatze pistan egingo dute txapelketa.

Skitaldia

18:30 Txokolate jana
Altzolan, Zubibai elkarteak antolatuta.

30 eguena

Musika

22:15 Jon & Sugramas
Kultur Etxeko sotoan.

«Los ojos de Julia»

25, zapatua: 22:15
26, domeka: 19:00
27, astelehena: 21:30

España, 2010. Zuzendaria: Guillem Morales. Aktoreak: Belen Rueda, Lluís Homar, Julia Gutierrez Caba, Pablo Derqui, Francesc Orella. 107 min.

Julia itsu gelditzen ari da gaixotasun baten ondorioz. Bellevuera itzuli da senarrarekin, ahizpa bisitatzeko. Ahizpak bat-batean bere buruaz beste egingo du.



31 barixakua

Feria

9:00 Gabon Zahar Feria
Goizean goizetik baserriko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izango da. Eguerdi aldean, Urteko Gazta Onena lehiaketa egingo dute. Trikitilariak arituko dira eguna alaitzen.

4 martitzena

Musika

17:30 Kontzertua San Lazaro egoitzan
Musika eskolako ikasleek San Lazaro egoitzan eskainiko dute kontzertua.

5 eguztena

Gabonak

17:30 Jaiotza biziduna
Plaza Handian jarriko dute jaiotza biziduna, Errege Magoei harrera egiteko.

Gabonak

18:00 Kabalgata
Errege Magoen kabalgata hasiko da Plaza Handian, eta herri osoa zeharkatuko dute.

6 eguztena

Gabonak

11:30 Meza berezia
Errege Magoek hartuko dute parte mezatan.

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak Errege Eguneko kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.
Egitaraua:
1. *Kaiser Franz Joseph*, martxa (R. Allmend).
2. *Vizcayatik Bizkaira*, obertura (R.M. de Azkue).
3. *La vida es bella*, filmaren banda sonora (N. Piovani).
4. *Katiuska*, fantasia (P. Sorozabal).
5. *Cordillera de los Andes*, aukeraketa (P. Sorozabal).

9 domeka

Ɖailazoak

16:00 eta 18:30 Pirritx eta Porrotx
Pirritx eta Porrotx pailazoek bi emanaldi eskainiko dituzte, *Ongi etorri Pupu eta Lore* saioa aurkezteko. Olaizaga kiroldegian.

MENDAROKO GAZTELEKUA

MARTITZENA, 28
Deba Cup

EGUENA, 30
Egun pasa Donostiara

ZAPATUA, 8
PES txapelketa

DOMEKA 9 ETA
ASTELEHENA 10
5. eta 6. mailakoentzat irekita



LUDOTEKAKO EKINTZAK

PISTAK JARRAITUTA
GAI IZANGO AL ZARA
MERIENDA TOPATZEKO?
ABENDUAREN 23AN
GINKANA-MERIENDA
LUDOTEKAN!
17:00ETAN,
LH4-6ko
HAUR GUZTIENTZAT



GAZTELEKUKO EKINTZAK

GABONETAKO
PROGRAMAKETA BEREZIA
GURE TUENTIAN,
GAZTELEKUAN BERTAN ETA
UDALETXEKO WEBGUNEAN
KONTSULTA DEZAKEZUE.

IZENEMATEAK ZABALIK
DAUDE. AURRERATZEN
DIZUEGU URTARRILAREN
4AN HOCKEY TXAPELKETA
EGONGO DELA. ANIMATU!

«Tron, el legendario»

26, domeka: 16:30
2, domeka: 16:30

«Bon appetit»

1, zapatua: 19:00/22:15
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30

Espainia, 2010. Zuzendaria: David Pinillos. Aktoreak: Unax Ugalde, Nora Tschirmer. Iraupena: 90 minutu. Adiskidetasunaren muga gaindituko dute bi lagunek eta une horretatik aurrera euren bizimodua ez da inoiz lehengo izango. Daniel sukaldari prestigiotsuak bere lanbidearen eta maitasunaren artean aukeratu behar du.

rera euren bizimodua ez da inoiz lehengo izango. Daniel sukaldari prestigiotsuak bere lanbidearen eta maitasunaren artean aukeratu behar du.

IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI
IEFPS MEKA GLHBI



2010
2011



GABON JAI
ZORIONTSUAK
ETA 2011
URTE BERRI ON

Zorionak eta urte berri on!





urkotronik

Zorionak eta Urte Berri On



Ostalaritza

902 127 137



Vending

www.urkotronik.com



Dibertimenduzko jokoak

Eibar



Foruen plaza

PINTXO HOTZAK ETA BEROAK
Goizeko 8:00etatik aurrera zabalik



Zorionak eta urte berri on!



Jai zoriontsuak denoi



GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

ETXEBIZITZA ERAIKI BERRIAK

Logela batekoak edo bikoak - San Bartolome kalea, 1

144.242 eurotik hasita

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 74 44 67



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjiodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorzaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



DACC

- Arropak 46 tailatik
80 arte
- Osagarriak:
pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka
ezagunenekin egiten dugu lan
(Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)



ABENDUAREN 24an

eta

URTARRILAREN 5ean

EGUN GUZTIAN ZABALIK!!

ONDO PASA GABONAK!